

# Hirigintza VII

## Lurralde Antolamendua eta Ingurumen Babesa

### 1.1. Lurralde-antolamenduaren praktika historikoa



### Zer da lurraldea?

Adiera politiko-administratiboaren arabera, **herrialderen** sinonimoa da



«Indiar lurraldea» Henry D. Rogers-en 1857ko atlasa

Ondoren, Oklahoma estatua izango zen («jende gorria» txoktaw hizkuntzan)

## Zer da lurraldea?

Adiera espazialaren arabera, **lurzoruren** sinonimoa da



Espekulatzailak Los Angelesen

## Lurraldea ez da lurzorua, sistema soziologiko bat baizik


«Lurraldea = Lurzorua + [Giza-]Identitatea»

«Lurraldea = Lurzorua + [Giza-]Kultura»



Antxon Lafont (Donostia, 1935), enpresaburua

**Lurraldea ez da lurzorua,  
sistema ekologiko bat baizik**




«Ama Lurraren  
baliabideak  
mugatuak dira»



Iñaki Petxarroman (Lasarte-Oria, 1973), kazetaria

**Sistema soziologikoa + Sistema ekologikoa...  
Lurraldea ez da lurzorua,  
sistema sozioekologiko bat baizik**




Social-Ecological System

Lurraldearen kontzeptu holistikoa, sistemikoa eta integratzailea: «**Gizakia naturan**»


Fikret Berkes; Carl Folke, 1998

## Sistemaren definizioa




Elkarrekin erlazionatzen diren hainbat elementu osatutako multzo antolatua

## Lurraldea sistema bat da



Lurraldea sistema sozioekologiko bat da, eraikuntza sozial bat:  
gizartearen garapen-ereduaren adierazpide espaziala

## Lurraldea garatzeko eredu ezberdinak



Nekazaritza-garapen ereduak vs industria-garapen ereduak

## Lurralde-antolakuntza praktika gisa vs zientzia gisa

Diziplina zientifiko edo teknika garatu bezala, edo baita arau-multzo bezala ere, jakintza-arlo berri samarra da lurralde-antolakuntza, XX. mendearen lehen erdialdean sortutakoa

Baina, jarduera edo praktika bezala, gizakia leku jakin batean finkatu zenetik existitzen da lurralde-antolakuntza

Zeren eta gizartearen garapen-eredu edo -estiloa espazialki adierazi da beti. Lurzorian beti utzi da gizarte bakoitzaren garapen-ereduaren azterna, lurraldea osatuz

## **Lurralde-antolakuntza praktika historiko gisa**

Betidanik existitu da. Bereziki, arazo zehatzak konpontzeko, hiru urrats hauekin lotuta:

1.- Hedapena: lur berrien kolonizazioa (atzera joanda, herri guztiok egin dugu)

2.- Defentsa: konkistatutako lurrena

Eta hirugarren urrats konplexuagoa:

3.- Egituratzeari: lurren antolamendua, bereziki azpiegituren bidez  
(garraiokoak, komertziokoak, kulturalak...)

Lehenengo bi jarduerak landu gabe ez dago lurralderik

Hirugarren jarduera landu gabe ez dago antolakuntzarik

## **Lurralde-antolakuntza motak**

Lurralde-antolakuntzaren praktika historikoan bi jarduera mota nagusi sailkatu daitezke, erabilitako bitartekoen arabera:

Lurralde-antolakuntza materiala (fisikoa)

Lurralde-antolakuntza immateriala  
(politikoa, ekonomikoa, kulturala...)


Eta, helburuen arabera, lurralde-antolakuntza hil ala bizikoa izan daiteke, edo espantsionista, edo defentsakoa, edo egituratzailea, edo...

## Eredu nomada: gizakiaren mundu-mailako migrazioa




Gizaki-fosil zaharrena: duela 200.000 urtekoa (Etiopiako Omo Kibish)  
Duela 60.000 urte gizakiak Afrika utzi omen zuten  
*The Genographic Project* (National Geographic)

## Eredu neolitikoa: nekazaritzaren sorrera eta hedapena




Ilgora Emankorra (Egipto, Mesopotamia): K.a. 11.000  
Txinako Yangtze eta Ibai Horiaren arroak: K.a. 9.000  
Saharaz hegoaldeko Afrika eta Mesoamerika: K.a. 5.000

## Eredu neolitikoko nekazaritza-iraultzaren ondorioak




## Eredu neolitikoa: gizakia finkatu egiten da



Jeriko, Zisjordania. 20 giza-finkamendu ezberdin (lehena, duela 11.000 urtekoa): munduko giza finkamendurik iraunkorrena




## Eredu neolitikoa: gizakia finkatu egiten da, EHn ere



Euskal Herriko aztarnategi neolitikoko nagusiak (Ana Cava)

## Eredu neolitikotik aurrerako finkamendua: hiria



«Komunitate baten boterearen eta kulturaren kontzentrazio goreneko puntua»


Lewis Mumford AEBko historialaria, 1938

## Eredu neolitikotik aurrerako antolakuntza: erresuma



Giza-finkamenduak zibilizazioetan edo erresumetan antolatzen hasi ziren. Sumertarra jotzen da lehen zibilizaziotzat (K.a. 3.500): gorpila eta idazketa asmatu omen zituzten

## Eredu neolitikotik aurrerako antolakuntza: erresuma



Source: *Historical Maps on File*, Revised Edition, Facts On File (adapted)

Lehen lau zibilizazioak lau ibai handiren arroetan kokatu (eta antolatu) ziren: Tigris/Eufrates, Nilo, Indo eta Ibai Horia


## Eredu neolitikotik aurrerako antolakuntza: erresuma

«Nahi izan dudan moduan bideratu ditut ibaien ibilguak, erabilgarriak izan diren lekuetaraino. Nire ibaiek emankor bihurtuta, lur idorrek uzta oparoa eman dute. Horma gaindiezinak eraiki ditut; eta, altzairuz, harkaitz iragangaitzetan zehar bideak ireki. Esfortzu handiz sortu ditut errepideak, lehen piztiek ere zeharkatu ezin zitzaketen lekuetatik.»

«I have directed the course of rivers at my will; and my will has directed them where they might prove useful. I have made a barren land produce plenty, and fertilised it with my rivers. I have built walls which are impregnable; and with iron forced a way through inaccessible rocks. At great expense I have formed roads in places, which before not even the wild beasts could traverse.»

Semiramis Asiriako erregina K.a. IX. mendean  
Polieno (*Stratagems*, 8. liburua, 26. kapitulua; K.o. 163)

## Eredu greziarra: polis hiri-estatu autarkikoa




Antzinako Greziako polis hiri-estatuaren osagai dira bai hiria bai landa

*Polis* = *Akropoli* (goiko hiri administratibo-erlijioetsua) + *Asty* (beheko hiri-espazioa) + *Chora/Khora* (inguruetako nekazaritza eta abeltzaintzako landa)

Autarkia: bakoitzak bere gobernua, bere legeak eta bere armada zituen (baina denak ziren zibilizazio berekoak, sinesmen eta hizkuntza berdinekin)

Tamaina txiki-ertaina: 10.000 biztanle eta 1.000-3.000 km<sup>2</sup> (Gipuzkoak 1.900 dauzka)

## Alemaniar hiri autarkikoa



20.000 biztanleko hiri autarkikoa:

375 ha hiri-lurzoruz, eta, guztira, 2.780 ha

Gottfried Feder

*Die neue Stadt* (1939)

Abb. 274. Flächengliederung einer Stadt mit 20 000 Einwohnern.  
Fläche des eigentlichen Stadtgebietes: 3 751 665 m<sup>2</sup> = 375,2 ha, Fläche des gesamten Stadtkreises: 27 808 440 m<sup>2</sup> = 2780,8 ha  
(Grenze des eigentlichen Stadtgebietes: ———).

23

## Erresuma-eredu ezberdinak: banaketa vs zentralismoa



Antzinako Grezia

K.a. VIII-VI

Gorritz, polis eta kolonia greziarrak

*POLIS*



Antzinako Grezia

K.a. 330

Alejandro Magnoren mazedoniar erresuma


*KOSMOPOLIS*

## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma




Erromako Erresumaren lurralde-hedatze progresiboa. 275 K.a. – 117 K.o.

## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma



Defentsarako lurralde-antolakuntza ere landu zuen Erromak, adibidez, Antoninoren eta Hadrianoren harresien eraikuntzaren bidez


## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma



OGNI PUNTO CORRISPONDE AD UNA COLONIA ROMANA


Kolonia erromatar nagusiak, K. o. I. mendearen amaieran (Trajano aurretik).  
Dazia (egungo Errumania), ondoren konkistatuko zen.

## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma




Erromak antolakuntza administratibo eta ekonomiko eraginkorrak ezarri zituen, baita lurreko eta itsasoko garraio-sare zabalak ere. Lurralde-antolakuntza egituratzailea galtzada erromatarraren hedapenaren bidez landu zuen.

## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma



Galtzada erromatarra, eraikuntzaren eskalatik lurraldearen eskalara


## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma



Zenturiazio-eredu teorikoa (galtzaden trazadurekin bat egiten zuena)

Erromaren lurralde-antolakuntza egituratzailearen beste tresna garrantzitsua zenturiazioa izan zen, lurraldearen (landaren eta hiriaren) partelazio sistematikoa

**Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma**



Zentuziaioa, koloniak egituratzeko sistema gisa: Timgad (egungo Algeria), 100 K.o.

**Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma**




Zentuziaio-  
aztarnak  
Noalen,  
Venezia

Zentuziaioaren bidez konkistatzen zituen lurak kolonoei banatzen zizkion Erromak. Zentuzia bakoitza 710 m-ko karratu bat zen, 20 actus-etan banatzen zena



## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma




Kolono erromatarrek (soldadu ohiak, horietako asko) *villae rusticae* edo landetxeak ezarri zituzten, konkistatutako lurri probetxua ateratzeko nekazaritzaren bidez

## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma



Latinarekin batera Erromatar Erresuman zeuden hizkuntzak (K.o. 150 d. C.)

## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma




Latinaren eragina

Ez ditu zeharkatu, modu iraunkor batean, Rina eta Danubio ibaiak

Errumania, salbuespena

## Lurralde-antolakuntza historikoa: Erromatar Erresumaren adibidea



Errumanian, modu isolatuan, hizkuntza erromantzea egoteko arrazoi bi:

- Dazian kolonizazio azkar eta masiboa ezarri zuen Trajanok, urbanizazioan oinarrituta, 8 kolonia nagusirekin eta kanpamendu militar ugarekin
- Mugan egoteagatik estrategikoa izanda, hiritartasun erromatarra zuten biztanle ugari lekualdatu zituzten Daziara, herria nabarmenki okupatuz


Ioana A. Oltean (2007): *Dacia: Landscape, Colonization and Romanization*

Kultura- (eta hizkuntza-) aldaketarako gako izan zen erromatar hiritartasuna, kolonien sorrerarekin batera

**Lurralde-antolakuntza historikoa: Erromatar Erresumaren adibidea**

Hiritartasun-maila ezberdinak asmatu zituzten, Erromarekiko atxikimenduaren arabera ematen zirenak. Maila bakoitzak eskubide batzuk aitortzen zizkion hiritarrari (baita botere handiagoa ere). Horrela, kolonizatuak, Erromaren aurka borroka egin ordez, hiritartasun-hierarkia horretan gora egiteko egiten zuten borroka. Hauek ziren hiritar-maila ezberdinak:

- *Civis Romani* (eskubide guztiak zituzten)
  - *Civis Romani, Liberti* (ezin zuten Administrazio Publikoan lan egin)
  - *Peregrini, Latini* (erdi hiritarrak)
- *Peregrini, Provinciales, Socii* (Italiatik kanpoko herritar guztiak: ezin zituzten jabegoak eduki)





**Lurralde-antolakuntza historikoa: Erromatar Erresumaren adibidea**

Kultura- (eta hizkuntza-) aldaketarako gako izan ziren, halaber, Erromatar Erresumak eraikitzen zituen ekipamendu publikoak:

termak, akueduktuak, anfiteatroak, zirkoak, antzokiak, tenpluak...

Konkistatuek ekipamendu publiko horiek erabil zitzaizkion, haien burua ere gutxinaka erromatar hiritar gisa ikusiz



## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma EHn



Galtzada eta bide erromatarrak Euskal Herrian (J.I. Linazasoro)

## Erresuma-eredu kolonizatzailea: Erroma EHn



Erromatar eskualdeak EHn, herrialde gehienei itsasorako irisgarritasuna emanez

Ptolomeo-ren Geographiaren 1511ko edizio baten zatia.


## Erdi Aroko eredia: zibilizazio handien arteko garaia

Erdi Aroa esaten zaio V. eta XV. mendeen arteko 1.000 urteko garaia, gizarte-estilo edo zibilizazio handien artean dagoelako (Antzinaroko Grezia/Erroma eta Aro Modernoko Pizkundera)


Goi Erdi Aroa: V. eta X. mendeen arteko garaia → Europar zibilizazioa gainbeheran dago. Inbasioak kanpotik datoz (Barbaroen inbasioak eta Islamaren hedapena)

Behe Erdi Aroa: X. eta XV. mendeen arteko garaia → Europa egonkortu egiten da eta haren demografia hazten da (hiribilduen sorrera). Inbasioak *barnetik* datoz: erresuma txikien arteko gatazkak, egungo Estatuaren oinarriak ezartzeko

### STEPPES : LE DÉFILÉ DES EMPIRES




## Erdi Aroko eredia: zibilizazio handien arteko garaia



Barbaroen inbasioak edo Migrazioen Garaia (300-900)

Germaniar eta eslaviar jatorriko herritarren migrazioa (Asiako Hunoen inbasioaren ondorioz, beharbada)

## Erdi Aroko eredia: zibilizazio handien arteko garaia



Islamaren hedapena

Marrooi ilunez: Mahomaren pean egindako hedapena (622-632)

Marrooi argiaz: Kalifato Ortodoxoan egindako hedapena (632-661)

Laranja argiz: Kalifato Omeyan egindako hedapena (661-750)


## Erdi Aroko eredia: zibilizazio handien arteko garaia



Europa  
1097an

Europaren egonkortzea eta hazkunde demografikoa  
Egungo Estatuaren oinarri izango ziren erresumen arteko *barne-gatazka*

## Erdi Aroko eredia: hiribilduaren sorrera



Alemaniko hiribildu ideala 1250ean (Karl Gruber, 1913)  
Hiribildua: trinkoa, gotortua eta etxe gotikoan oinarritua

## Defentsarako Erdi Aroko eredua: Nafarroako gazteluak



Nafarroako Erresuma defendatzeko gazteluak (Iñaki Sagredo)


## Erdi Aroko eredua: Nafarroako erresumaren hiribilduak



Nafarroako Erresumaren hasierako hiribilduak eta hiri-gutunak




## Erdi Aroko eredia: Nafarroako erresumaren hiribilduak




Lurralde-antolakuntza defentsibo zein egituratzailea  
Nafarroako Erresumaren mendebaldeko muga zaintzeko sortutako hiribilduak

## Erdi Aroko eredia: EHko hiribildu eta bastidak



## Erdi Aroko eredia: komertzio-azpiegiturak



**Hansa Liga:** Itsaso Baltikoko komertziorako konfederazio nazioartekoa (XIII-XVI)

## Erdi Aroko eredia: komertzio-azpiegiturak




**Hansa Liga:** ereduak operazioa, lurralde-antolakuntza anizkuna dagokionez  
Lurralde-antolakuntza ekonomikoa, kulturala, egituratzailea eta militarra:  
komertziantek, artistek eta langileek sortu zuten, elkarri laguntza emateko (kontrola,  
babesa, araudia, kristautzea, egituratzea)  
1957an sortutako Europako Ekonomia Erkidegoaren moduko zerbait, eskala txikiagoan)  
Hiri berrien sorrera sustatu zuen: Riga, Rostock, Stettin, Königsberg, Stockholm

## Erdi Aroko ereduak: komertzio-azpiegiturak



Lurralde-antolakuntza egituratzailea (merkataritza-pribilegioei dagokienez)  
Zetaren bidea: Asia eta Europa arteko komertzio-bide garrantzitsua (K.a. I-XV)

## Erdi Aroko ereduak: erromesaldi-azpiegiturak



Lizarra, 1090ean sortua



Donejakue bidea: lurralde-antolakuntza materiala eta immateriala  
Hiri linealak sortu dira haren inguruan (Donibane-Garazi, Gares, Lizarra...)

## Defentsarako Erdi Aroko eredu: Ming Harresi Handia




Txinako Harresi Handitik Ming dinastiak egindako zatia (8.850 km). XIV. mendea

## Amerikako aurkikuntzaren ondorengo eredu koloniala



Amerikako lurren okupazio europarra XVI. eta XVIII. mendeetan


## Amerika kolonizatzeke espainiarren eredu koloniala




Plaza de Armas inguruan antolatzen ziren, sare erregular bat oinarri XVI. eta XVIII. mendeen artean

## Espainiar eredu kolonialaren jatorria

Granada musulmanei konkistatzeko (ia 8 mende egon zirenak bertan) 1491 inguruan errege katolikoek herri berri bat egin zuten, Real de Santa Fé, Real de la Vega kanpamenduaren ondoan, eta, hura egiteko Burgosko Briviesca neurtarazi zuten. Briviesca zein Santa Fe eredu urbanistikoko bilakatu



## Lehen hirigintza-ordenantzak




San Juan de la Frontera, Argentina,  
1562

lerrokadura-planoen agindu  
osagarriak ziren lehen  
hirigintza-ordenantzak

hirigintzaren eta arkitekturaren  
arteko bitartekotza egiten zuten

esaterako, XVI. mendeko Hego  
Amerikaren espainiar konkistan,  
hiri-ordenantzak ezarri ziren  
kolonizaziorako: Karlos V.arenak  
(1523) eta Filipe II.arenak  
(1573)

## Lehen hirigintza-ordenantzak




Caracas,  
Venezuela,  
1577

114

*De la plaza salgan quatro calles principales vna por medio de cada costado de la plaza. Las quatro esquinas de la plaza miren a los quatro vientos principales porque desta manera saliendo las calles de la plaza no estaran expuestas a los quatro vientos principales que seria de mucho ynconviniente*

*Ordenanzas de descubrimiento, nueva poblacion y pacificacion de las Indias dadas por Felipe II, el 13 de julio de 1573, en el bosque de Segovia*


## Amerika kolonizatzeke espainiarren eredu koloniala



San Ignacio Mini, Argentina, 1632  
XVIII. mendean, 3.000 biztanle

Lurralde-antolakuntza materiala eta immateriala: erlijioaren papera  
Jesuiten 30 misio guaraniarrak (XVII-XVIII mendeen artekoak)

## Amerika kolonizatzeke espainiarren eredu koloniala




Nra Sra de la Candelaria  
Argentina, 1628

«En un principio, cada reducción tenía sus campos de cultivo y de ganado, pero con el tiempo el sistema se organizó en campos comunitarios por zonas y grupos, contribuyendo con ello al control del territorio y a la relación funcional entre cada pueblo y las estancias, así como a los pueblos entre sí. (...) La buena ubicación de cada pueblo en terrenos algo elevados permitía una defensa y un correcto drenaje frente a las lluvias tropicales, y también daba lugar a la visión de uno a otro pueblo.»


Viñuales, Graciela M<sup>a</sup> (2007): "Misiones jesuíticas de Guaraníes (Argentina, Paraguay, Brasil)"

## Europarren eredu kolonizatzailea: Ekialdeko Indiak



Europarrek Ekialdeko Indietan XVI, XVII eta XVIII. mendeetan sortutako faktoria-hiri nagusiak

## Amerika kolonizatzeke ingelesez eredu koloniala




Philadelphia (Pennsylvania), 1682an sortua  
William Pennek egindako plano (antzerako zerbait eraiki zen)

Sare ortogonalarri auzo-unitate errepikorraren kontzeptua gehitzen zaio




## Amerika kolonizatzeke ingelesaren eredu koloniala



Philadelphia errealtatean: «five squares» delakoak.  
Auzo-unitate seriagarria ikus daiteke oraindik.

## Amerika kolonizatzeke ingelesaren eredu koloniala



Savannah (Georgia), 1733an sortua. James Edward Oglethorpek diseinatutakoa  
Sare ortogonalari auzo-unitate errepikakorraren kontzeptua gehitzen zaio

## Amerika kolonizatzeke ingelesezko eredu koloniala






Figure 119. The Growth of Savannah, Georgia: 1733-1856

Savannah (Georgia), 1733an sortua. James Edward Oglethorpek diseinatutakoa Sare ortogonalari auzo-unitate errepikorraren kontzeptua gehitzen zaio



Savannah 1800\_John McKinnon


## Amerika kolonizatzeke estatubatuarren eredia



«Land was to be systematically surveyed into square townships, six miles (9.656 km) on a side. Each of these townships were sub-divided into thirty-six sections of one square mile (2.59 km<sup>2</sup>) or 3600 acres. These sections could then be further subdivided for re-sale by settlers and land speculators.»

Albert White (1983): "A History of the Rectangular Survey System"


AEBko Independentzia Gerra 1783an amaitu zen (kolonoek Ingalaterrari irabazi zioten) 1785ean Jeffersonek, presidenteorde zenean, *Land Ordinance* argitaratu zuen, nazio osoaren lurraldea modu antolatu batean zatitzeko (bereziki, mendebaldea konkistatzeko) Eskala guztietarako oinarri bezala erabiliko zen, baita estatu berriak banatzeko ere 6 miliako *township* delakoa sortu zen (9,7 km-ko karratua)



Amerika kolonizatzeke estatubatuarren eredia

Township delakotik (9,7 km-ko karratua) lote edo partzelara (38 x 18,3 m: ia 700 m<sup>2</sup>)

## Amerika kolonizatzeke estatubatuarren eredu



Seven Ranges, Ohioko ekialdea: township-ak zenbatzeko hasiera

Helburua zen konkistatutako lurra antolatzea eta zenbatzea, ondoren saltzeko, eta ondoren zergak errekaudatzeko. Gainera, Estatuak zati batzuk erreserbatzen zituen.

Guztia, indio natiboekin borroka egiten zuten bitartean

LAND ORDINANCE - 1785

36	30	24	18	12	6
35	29 Reserved to U.S.	23	17	11 Reserved to U.S.	5
34	28	22	16 School Reserve	10	4
33	27	21	15	9	3
32	26 Reserved to U.S.	20	14	8 Reserved to U.S.	2
31	25	19	13	7	1

## Eredu berria: mundu-mailako ekonomiaren garapena

XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran mundu-mailako ondorioak ekarriko zituen iraultza bikoitza jazotzen da Europan:

Iraultza frantsesa (iraultza politikoa; 1789) eta Iraultza ingelesa (iraultza industrialak; 1750-1840)

Iraultza politikoa, besteak beste, egungo Estatu nazional ustez demokratikoen justifikazio teorikoa (eta horrek dakarren ustezko nagusitasuna) ekarri zuen


Iraultza industrialak, besteak beste, landatik hirirako lekualdatzea, lurrun-makina (trena eta itsasontziaren garapena) eta demografiaren hazkunde handia ekarri zituen

## Iraultza politikoa. Euskal Estatu Nazionalaren proposamena



1803-1811 arteko gutun batzuetan, Dominique J. Garat baionarrak (ministro izandakoa) **Fenizia Berria** izeneko Euskal Estatu bat sortzea proposatzen dio Napoleon Bonaparteri, Frantziaren Errepublikaren nolabaiteko babesean legokeena. Aitzakia zen estatu horrek Frantziaren eta Espainiaren arteko liskarrak baretuko lituzkeela  
Euskal Nazionalismoaren lehen proiektutzat jo daiteke


## Iraultza politikoa. Frantzia-España gatazkaren ondoriozko lurralde-bitxikeria: Faisaien uhartea edo Konpantzia



30 Urteetako Gerraren ondoren, Luis XIV.ak eta Felipe IV.ak Piriniotako bake-hitzarmena sinatzen dute 1659an.

1856an uhartearen soberania intermitentea sinatu zen Baionan: Estatu bakoitzak urte erdi administratuko zuen.

**Gaur egun Espainiar Estatuak dituen bi lurralde-gatazka handienak muga-igarobideen ondoko erkidegoetan daude**



### **Euskal Herriaren eta Kataluniaren kokapen estrategikoa**



Irún eta La Jonquera pasabideen garrantzia Espainiak errepidez inportatu zituen merkantzia tona-milioiak, 2000an.

El Confidencial

LA COMPLEJA RUTA A FRANCIA POR EL PIRINEO CENTRAL

## Valencia-Zaragoza-Canfranc: el plan B del transporte por si cuaja el 'procés'

Fomento y el Puerto de Valencia se alían para reforzar el Corredor Cantábrico como alternativa a los puertos catalanes. Pero la salida por el Pirineo Central hacia Europa está repleta obstáculos



24/09/2017 05:00 - ACTUALIZADO: 24/09/2017 23:13


¿Cómo afectaría a la logística española una hipotética **independencia de Cataluña**? ¿Qué alternativas tendría el transporte ferroviario para conectar España y Francia si el ahora concurrido paso fronterizo de **Portbou** pasase a formar parte de un Estado ajeno a la **Unión Europea**? ¿Es posible transportar mercancías o pasajeros al vecino francés sin pasar por territorio catalán? Ninguna de estas preguntas está en la agenda política española. Muy pocos entre las élites gobernantes contemplan la separación catalana como una opción realista y, menos aún, la aparición de un día para otro de un escenario arancelario complejo por la aparición de un territorio no comunitario interpuesto entre dos países miembros de la Unión.



Fuente: Ministerio de Fomento (Gobierno de España)

- Red Alta Velocidad viajeros
- Red básica mercancías
- Red Global en el corredor
- Red Global de ferrocarriles
- Nodo logístico
- Puerto de RTE-T
- Aeropuerto de RTE-T

## Iraultza industrial. Trenbidea



Stockton and Darlington Railway trenbidearen ibilbide-planoa, 1822koa:  
 1. trenbidea lurrun-lokomotora erabiltzen. Ingalaterrako ipar-ekialdea.

## Bi itsaso lotzeko lurralde-antolakuntza

Mediterraneo itsasoaren eta Ozeano Atlantikoaren artean



Beziersko eskusa

Frantziako "Bi itsasoen ubidea" bi ubidek osatzen dute:  
Canal du Midi (1666-1681; 241 km) eta Canal de Garonne (1838-1856; 193 km)  
Aurrezten dute 3.000 km-ko buelta, Gibraltarreko itsasartetik

## Bi itsaso lotzeko lurralde-antolakuntza

Mediterraneo itsasoaren eta Itsaso Gorriaren artean



Suez kanala (1859-1869; 163 km). Europa eta Asia lotzen ditu, Afrika inguratzeko beharrik gabe. Egiptok Ingalaterrari saldu zion, ondoren nazionalizatzeko (gatazka etengabeak)



## Amerika kolonizatzeke estatubatuarren eredia eta tren



AEBetako trenbide-sarea 1870ean



AEBetako trenbide-sarea 1917an

Trenaren asmakizunak izugarri bizkortu zuen AEBetako mendebaldearen konkista

## Errusiar lurralde zabala egituratzeko trenbidea



Mosku eta Vladivostok arteko Transiberiar Trenbidea (gorriz), munduko linearik luzeena da: 9.288 km. 1893 eta 1904 artean eraiki zuten

## Munduko egungo tren-linea handiena: Yiwu-Madril Soilik merkantzietakoa (eta solik doa beteta Madrilerako norakoan)

### LA RUTA DE LA SEDA FERROVIARIA

LA RUTA DEL TREN  
**13.052 km**

LOS TRES CAMBIOS DE ANCHO DE VÍA  
(RECARGA DE LOS VAGONES)

ANTIGUA RUTA DE LA SEDA  
(200 a de C. 100 d de C)

PRINCIPALES  
VÍAS DE FERROCARRIL



21 egun behar ditu ailegatzeko (itsasontzian 30-40 lirateke). 2014tik dago martxan.

## Eredu industrialia mundu mailan hedatzen da

1850 eta 1930 artean eredu industrialia mundu mailan hedatzen da  
(Errusia, Txina...)

Espainiak Hego Amerikako azken koloniak 1898an galdu zituen

Alabaina, Ozeania eta Afrika beste europarren artean banatzen da

Afrika 1880 eta 1913 artean *banatzen da*, lerro zuzenen bidez.

Lehengaiak lortzeko kolonizazio-borroka da, industrializazioarekin  
jarraitzeko helburuarekin

(Lehen Mundu Gerra pizteko arrazoi nagusietako bat)

## XX. mende hasierako eredu kolonial harrapakaria



Afrikaren banaketa koloniala 1914an



Cecil J. Rhodes kolono ingeles boteretsuak Hegoafrikako Lurmutur Hiria eta Egiptoko Kairo lotu nahi zituen telegrafoz eta trenbidez

## Mundu-mailako politika eta ekonomia: Panamako kanala




Frantsesen proiektuak porrot egiten du 1888an, 1881ean obrak hasi ondoren 1903an AEBek Panamaren independentzia babesten dute (Colombiarengandik) 1904an AEBek obreakin jarraitzen dute. 1913an amaitzen dute (1992 arte kudeatu zuten). AEBko ekialdeko kostatik Japoniara 5.000 km aurresten ditu; mendebaldeko kostatik Europa, 9.000 km

## Mundu-mailako politika: Lehen Mundu Gerra



Lehen Mundu Gerraren (1914-1918: 9 milioi hildako) ondorengo mapa (1923)  
Versallesko Bake Hitzarmena (1919): «Historia, ez; geografia»

## Mundu-mailako garraiobide-sarea



Itsasontzizko eta trenbidezko mundu-mailako garraiobide nagusiak 1928an,  
Suez eta Panamako kanalak barne. Londres eta New York, nagusi, zentro.

## Mundu-mailako krisi ekonomikoa: Depresio Handia



Ondasunen gehiegizko produkzioak 1929ko kraxa ekarri zuen, eta baita ondorengo Depresio Handia ere (1929-1939)

## Ekonomia-krisirako irtenbidea: Lurralde-antolakuntza



1933an Tennessee Valley Authority (TVA) elkartea sortu zuen Franklin D. Roosevelt presidenteak, ekonomia pizteko *New Deal* programaren barruan.

Askok lurralde-antolakuntzaren hasieratzat jotzen dute.

Orduz geroztik, lurralde-antolakuntza arazo zehatzak konpontzeko praktika bat izatetik hainbat teknika biltzen dituen zientzia bat izatera igaroko da.

## **Lurralde-antolakuntzaren praktika historikoa: ondorioak**

Herrialdeek (erresumek, estatuak, eskualdeek) haien politiken artean aurrera eramandako praktika bat

Praktika horrek 3 fase nagusi izan ditu:

Hedapena + Defentsa + Egituratzea (azpiegiturak: garraiokoak, komertziokoak, kulturalak...)

Lehenengo bi jarduerak landu gabe ez dago lurralderik  
Hirugarren jarduera landu gabe ez dago antolakuntzarik

## **Lurralde-antolakuntzaren praktika historikoa: ondorioak**

Lurralde-antolakuntzaren praktika historikoan bi jarduera mota nagusi sailkatu daitezke, erabilitako bitartekoen arabera:

Lurralde-antolakuntza materiala (fisikoa)

Lurralde-antolakuntza immateriala  
(politikoa, ekonomikoa, kulturala...)

Eta, helburuen arabera, lurralde-antolakuntza hil ala bizikoa izan daiteke, edo espantsionista, edo defentsakoa, edo egituratzailea, edo...